

Migel Angel Elustondok bere azken liburua aurkeztu du Azpeitian

AZPEITIA. DV. Udal liburutegiak antolatuta aurkeztu du Migel Angel Elustondok idatzi berri duen azken liburua, Basque Wenster Festival. Hala esan zuen aurkezpenaren sarrera egiterakoan Jose Luis Otamendi idazleak: Ameriketara joan eta ez milioi askoren jabe baino esperientzia askoren jabe eta liburuarekin etorri da.

Liburua Azpeitira etortzeko aitzakia izan dela adierazi zuen Elustondok, lagunei kontatu nahi izan diela egindako lana. Izan ere, ez zen aspaldian jaioterrian ibili: Familia ikustera etorri izan naiz tartean behin, baina Azpeitira etorri, etxean sartu eta atzera martxa egin izan dut. Azpeitiko kalea zapaldu, joan deneko dozena urtean behin edo bitan egingo nuen. Eta zenbait lagun ikusi, berriz, garai bateko ikastolako irakasle lagunak, edo ikasleak, gutxi baino gutxiago. Baten batzuk, Gorbeia gailurrean ikusi nituen behin. Besteren bat, Loiuko aireportuan joan den udan. Horrela. Garai bateko Azpeitiko lagunen egarritan bizi naiz, esan digu.

' Basque Western Festival '

1959an Renon Ameriketara joandako euskaldunek egindako jaialdi erraldoia abiapuntutzat hartuta, 13 ataletan banatu du Elustondok liburua. Renoko liburutegiko sotoan topatu zuen pelikula autoreak Reno-Nevadara egindako lehen bidaian, 1992ko udan eta oso jende gutxik ikusi omen du pelikula. Horren gainean egin du liburua, Nevadara joan-etorri askoren ostean. Urterik urte eta egonaldirik egonaldi, euskal-amerikarren historiaren gaineko berri gehiago jakin nuen, batean irakurrita, bestean entzunda. Harik eta, azkenean, seinale guztiak jaialdi hartara zuzentzen nindutela sentitu nuen arte. Orduan, datuak batu, gehiagoren bila paper eta agiri zaharretan eta jaialdian parte hartu zutenen lekukotasunak bildu eta diskurtso bat antolatu nuen arte: oraingo liburu hau, alegia.

Lana amaitu osteko patxadarekin begiratuta, fruitua zer nolakoa iruditu zaion galdetu diogu Elustondori: Batetik, gehiago idatz nezakeela, gehiago osatu. Bestetik, ez nuen saio akademikoa idatzi nahi, literaturaren jolasa nahi nuen. Hortxe jardun dut, zangalatraba. Behintzat, nire liburu honek aurrez jaialdiari buruz idatzita zeuden testuak osatzeko balioko duela uste dut eta, atzetik besteren bat etortzen bada gai berari buruz idaztera, lagunduko diola gailurreraino iristen. Lana eginda dago, ez da perfektua, baina ondo dago horrela, oraingoz. Jaialdiari buruz idazten eta, azkenean, zera konturatu naiz, neu naizela festibal hari buruz munduan gehien dakiena. Bada zer edo zer!, esan digu.

Duela 50 urteko Basque Western Festival hura bost urtetik behin egiten den jaialdia bihurtu da, ' jaialdi ' erraldoia.

Ehunka mila jende, eta benetako gertakaria eta jende bilkura handia, mendebalde eta ekialdeko jendea mobilizatzeko indarra duena, Kaliforniakoa eta New Yorkekoa. Euskal Herritik, Australiatik edo Mexikotik, leku askotatik, joandako jendea izaten da.